

14/11

*i*rizpena

BIDAIAREN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIOAREN
LEGEAREN ARAUDIA ONARTZEN DUEN
Dekretu Proiektuari buruzkoa

Bilbon, 2011ko ekainaren 30a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea



*i*rizpena 14/11

I. AURREKARIAK

2011ko ekainaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailaren idazkia sartu zen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean, *Bidaiarien Errepide bidezko Garraioaren Legearen Araudia onartzen duen Dekretu Proiektuari* buruzko txostena eskatuz, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera.

EAEko Bidaiarien Errepide bidezko Garraioaren Legearen (martxoaren 18ko 4/2004 Legea) xedapenak garatzen dituen Dekretu Proiektua da, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak Euskal Herriari esleitutako eskumenei jarraiki, xedapen horiek gai honen eremuan izaera eskusibokoak direlarik Autonomia Erkidegoko lurralde mugak gainditzen ez dituen izaera horretako garraioa araupetzeko.

14/11

Ekainaren 8an, agiria helarazi zitzaien Batzordeko Osoko Bilkurako kide guztiei beren proposamen eta iritziak igor zitzaten, eta horien berri eman zitzaion dagokion Lan Batzordeari, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Araudian ezarritakoaren arabera.

Garapen Batzorde Ekonomikoa, zeinari agiri honen inguruko lanak egi-tea esleitu zaion, ekainaren 23an bildu zen Irizpen Aurreproiektuaren lehenengo proposamena eztabaidatzeko. Eta berriro bildu zen ekainaren 29an, ondoko Irizpen Proiektu hau onartzea erabaki zelarik. Aipaturikoa Euskadiko EGABeko 2011ko ekainaren 30eko Osoko Bilkurari aurkeztu zitzaion eta, bertan, aho batez onartu zen.

II. EDUKIA

Dekretu Proiektuak Sarrera bat, bi artikulua, bi Xedapen Iragankor, Xedapen Indargabetzaile bat, hiru Azken Xedapen eta bidaiarien errepide bidezko garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen Araudia duen Eranskin bat dauzka.

Sarrera

Dekretu Proiektua EAEko Bidaiarien Errepide bidezko Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legea eta horren 4 artikulua, Eusko Jaurlaritza aipaturikoa garatu eta ezartzeko xedapen arautzaileak emateko ahaldunduz duena, garatzeko deiera duen testu legegilean kokatzen du.

Araudiaren edukia suspertzen duen filosofiari dagokionez, Sarrerak EAEko bidaiarien errepide bidezko garraio publikoak proposatzen dituen errealitate eta erronka berrienganako sentsibilitate berezia aitortzen du, lehenik eta behin garraio-eredu jasangarriagorantz aurreratzeko beharriazana aipatzen delarik, horren ingurumen-jasangarritasunaren alderdian zein jasangarritasun ekonomikoaren eta jasangarritasun sozialarenean. Garrantzitsutzat hartzen du baita ere errepide bidezko garraioaren kalitatea sustatzea, eta segurtasuna nabarmentzen da (zehazki, eskolako garraioarena). Azkenik, arau esparruko azterketa ekonomikoa sartzea aipatzen du, merkatu irekiago, askeago eta lehiakortasunaren zuzenbidearen joeretara doituago dagoen merkatua ahalbidetzeko.

Atera den testua harmonikoa da Estatuko legeriarekin eta Europakoarekin, eta errepide bidezko garraiatzailearen lanbidea burutzeko baldintzei buruzko arau komunak ezartzen dituen 1071/2009 eta bidaiarien trenbide eta errepide bidezko garraioaren zerbitzu publikoei buruzko 1370/2007 bezalako erkidegoko Araudietatik eratorritako araudia sartu da.

Jarraian, araudiaren kapitulu eta ataletako edukiak deskribatu dira laburki: I. Kapituluak xedapen komunak biltzen ditu, bigarrenak jarduera burutzeko araubide juridikoa eta III. Kapituluak hiriarteko zerbitzu publikoaren prestazioaren alderdi juridikoak araupetzen ditu. IV. Kapituluak interes publikoko garraio-zerbitzuen araubide juridikoa araupetzen du, V. Kapituluak bidaiarien hiriko garraioa udal zerbitzu publiko legez, VI. Kapituluak bidaiarien geltokiak eta VII. Kapituluak ikuskaritza- eta kontrol-araubidea.

Azkenik, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bakar bat eta hiru azken xedapen garatzen dituen arauaren osaera adierazi da.

Xedapenen Multzoa

1. Artikuluak Bidaiaren Errepide bidezko Garraioari buruzko 4/2004 Legearen Araudiaren onarpena ezartzen du, Dekretuaren I. Eranskinean dagoena.

2. Artikuluak 4/2004 Legearen XII. kapituluko araubide zigortzailea ezartzea ezartzen du Araudian aurreikusitako xedapenak betetzen ez diren kasuetarako.

Lehenengo Xedapen Iragankorrak Araudia indarrean jarri aurreko zerbitzu publiko erregularren emateen indarraldia amaierara arte mantentzea xedatzen du.

Bigarren Xedapen Iragankorrak Araudiak jarritako araubide berria hori indarrean jartzerakoan dagoeneko hasita dagoen baimen- edo emakidapedienteen izapidetzeari ezartzea ezartzen du.

Xedapen Indargabetzaileak bidaiarien errepide bidezko erabilera bereziko garraio-zerbitzu erregularrak emateko lehentasun-eskubideari buruzko 266/1998 Dekretua eta Araudian ezarritakoaren aurkakoak diren maila bereko edo txikiagoko xedapenak indargabetzen ditu.

Lehenengo Azken Xedapenak Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Kontseilaria beharrezkoak diren Araudiko interpretazio-, garapen- eta betearazpen-xedapenak emateko ahaldunduzkoak dira.

Bigarren Azken Xedapenak garraio eta kontratazio publikoko Estatuko araudiaren ezarpen osagarria aurreikusten du Araudian aurreikusita ez dagoenerako.

Hirugarren Azken Xedapenak Dekretua berau EHAOn argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jartzea xedatzen du.

Eranskinak Bidaiarien Errepide bidezko Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legearen Araudia biltzen du, honako gai hauen inguruko 75 artikuluz osatua dagoena:

I. Kapitulumua. Xedapen Komunak

1. Artikulua. Araudiaren xedea
2. Artikulua. Antolaketa administratiboko printzipioak
3. Artikulua. Plangintza Orokorra
4. Artikulua. Garraio-planak egitea
5. Artikulua. Lankidetzeta eta Koordinazioa
6. Artikulua. Tarifen araubidea eta egitura
7. Artikulua. Tarifen berrikuspena
8. Artikulua. Moneta-aldaketak

II. Kapitulumua. Jarduera Burutzeko Araubide Juridikoa

9. Artikulua. Jarduera gauzatzeko baldintza subjektiboak
10. Artikulua. Jarduera gauzatzeko baldintza objektiboak
11. Artikulua. Jardueraren gauzatzearen jarraipena
12. Artikulua. Garraiatzaileen Erregistroa
13. Artikulua. Aseguruak

III. Kapitulumua. Bidaiarien Hiriarteko Garraio-zerbitzu Publikoa

14. Artikulua. Erabilera orokorreko etengabeko garraio publiko erregularreko zerbitzuaren ezarpena
15. Artikulua. Garraio-zerbitzu publikoa ezartzeko proiektua
16. Artikulua. Zerbitzua ezartzeko espedientearen izapidetzea
17. Artikulua. Zerbitzua emateko beste konponbide batzuen balorazioa
18. Artikulua. Trafikoen zehaztapena
19. Artikulua. Aldi bereko trafikoen salbuespenezko baimena
20. Artikulua. Hiriarteko garraio-zerbitzu erregularren ustiapena
21. Artikulua. Kudeaketa publikoa eta emate zuzena
22. Artikulua. Publizitatea
23. Artikulua. Emakiden iraupena
24. Artikulua. Preskripzio teknikoen eta klausula juridiko-administratiboen agiriko baldintzak
25. Artikulua. Konkurrentzia

26. Artikulua. Behin-behineko bermea, dokumentazioa eta balorazio-irizpideak
27. Artikulua. Proposamenen sailkapena
28. Artikulua. Ondoan sailkaturiko lizitatzailleak dokumentazioa ekartzea
29. Artikulua. Emakidaren esleipena
30. Artikulua. Zerbitzua abian jartzea
31. Artikulua. Zerbitzua ematea
32. Artikulua. Egutegia, ordutegia eta bidalketak
33. Artikulua. Garraio-zerbitzu publikoko kontratuen aldaketa
34. Artikulua. Zerbitzua emateko baldintza zehatzen aldakuntza: egutegia, ordutegia eta bidalketak
35. Artikulua. Hirugarrenen bitartekoak eta azpikontratazioa
36. Artikulua. Ibilgailuak bi emakidatan edo gehiagotan erabiltzeko baimena
37. Artikulua. Emakidak bateratzea
38. Artikulua. Emakiden eskualdatzea
39. Artikulua. Emakidaren iraungitzea eta esku hartzea
40. Artikulua. Definizioa eta eremua
41. Artikulua. Ustiapen-plana
42. Artikulua. Araubide juridikoa

IV. Kapitulua. Interes Publikoko Garraio-zerbitzuen Araubide Juridikoa

43. Artikulua. Erabilera baxuko Zerbitzu Publikoa
44. Artikulua. Erabilera baxuko zerbitzu publikorako ezartzea eta gaitzea
45. Artikulua. Luzapena edo eraldatzea
46. Artikulua. Aldi baterako garraio erregularrak
47. Artikulua. Aldi baterako garraio erregularrak egiteko administrazio-gaikuntza
48. Artikulua. Erabilera bereziko garraio erregularra. Kontzeptuak.

- 49. Artikulua. Baimenaren baldintzak
- 50. Artikulua. Baimena ematea
- 51. Artikulua. Dokumentazioa
- 52. Artikulua. Ukapen-kasuak
- 53. Artikulua. Erabilera bereziko garraio erregularreko ibilgailuak
- 54. Artikulua. Zerbitzuaren ordainketa
- 55. Artikulua. Baimenen epea
- 56. Artikulua. Erabilera orokorreko eta erabilera bereziko garraioaren integrazioa
- 57. Artikulua. Eskatu ahalako garraio publikoaren baimenak
- 58. Artikulua. Garraiatzaileen arteko lankidetzak
- 59. Artikulua. Plazen araberako kontratazio-kasuak
- 60. Artikulua. Garraio turistikoa
- 61. Artikulua. Bat etortzea garraio turistikoa eta erabilera orokorreko bidaiarien garraio erregularren artean
- 62. Artikulua. Garraio pribatu osagarria

V. Kapituluak. Hiriko garraioa

- 63. Artikulua. Bidaiarien hiriko garraioa
- 64. Artikulua. Koordinazioa eta aldi bereko trafikoak
- 65. Artikulua. Hiriarteko edo zonaldeetako zerbitzuen hiriko geltokiak

VI. Kapituluak. Bidaiarien geltokiak

- 66. Artikulua. Bidaiarien geltokiak
- 67. Artikulua. Ezarpena
- 68. Artikulua. Ustiapen-emakidaren esleipena
- 69. Artikulua. Gaitzen duen administrazio-titulua

VII. Kapituluak. Ikuskaritza- eta kontrol-araubidea

- 70. Artikulua. Garraioak ikuskatzeko zerbitzuak
- 71. Artikulua. Ikuskaritzako zerbitzuekiko betebeharrak
- 72. Artikulua. Lankidetzak beste administrazio batzuekin

73. Artikulua. Ikuskatze-jardueraren plangintza

74. Artikulua. Administrazio-emakiden eta -baimenen titularrena

75. Artikulua. Zerbitzua ematera zuzenduriko ibilgailuena

III. OHAR OROKORRAK

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Irizpenpean jarri den Dekretu Proiektuak EAEko erkidego barneko eremuan bidaiarien errepide bidezko garraioa araupetzen duen euskal legeria (Bidaiarien Errepide bidezko Garraioari buruzko martxoaren 18ko 4/2004 Legea) garatu eta ezartzeko arauak hartzea du helburutzat. Araupetze hori Autonomia Estatutuaren 10.32. artikulua EAEri lurreko garraioen eremuan esleitzen dizkion eskumen eskusiboak gauzatzetik eta horien inguruan Auzitegi Konstituzionalak 118/1996 Epaian egiten duen interpretaziotik dator, bidaiarien autobus bidezko garraio publikoaren (horren ibilbidea osorik EAEn lurraldetik igaroko dena) funtsezko alderdien araupetze propio eta sakona ezartzeko².

Bidaiarien errepide bidezko garraioaren (eta, oro har, mugikortasunaren) beharrezan zuzenduriko erantzun egokia funtsezko elementua da garapen ekonomikorako eta gizarte eta lurralde mailako kohesiorako. Horregatik, EAE bezalako lurralde baten (orografia malkartsua eta jarduera ekonomiko bizirik eratorritako mugikortasun handia, biztanleria-dentsitate altua eta Iberiar Penintsularen eta Europako kontinentearen gainerakoaren artean komunikazio-ardatz atlantikoko kokapen geografikoa dituen) ezinbestekoa da ezaugarri propioen gainean oinarrituriko garraioari buruzko araupetzea.

Euskadiko EGABak arau-ekimen hori modu positiboan baloratzen du euskal autonomiako araudiaren ezarpena osatu eta erraztera baitator errepide bidezko garraioaren eremuan legearen alderdi instrumentalen eta zehaztasun-alderdien araupetzearekin, bai eta arau-garapen propioko hutsune-aldi luzea gainditzera ere. Halaber, aukera baliatzen du testu arauemaile propio batean gaiaren inguruan eragina duten eta erkidegoko hainbat Arauditan bildurik dauden erkidegoko zuzenbideko xedapenak biltzeko. Xedapen horiek, zuzenean ezar daitezkeen arren

1.- Dekretuaren tituluarri garatzen duen legearen (martxoaren 18ko 4/2004 Legea) erreferentzia osoa gehitzea gomendatzen da, Dekretuak garatzen duen legearen zalantzarik gabeko identifikazioa ahalbidetzen duena.

2.- Bidaiarien automobil bidezko hiriko eta hiriarteko garraio Publikoaren eta Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarearen araupetzea modu berezian araupetzen dira lege banatan: ekainaren 29ko 2/2000 Legea eta maiatzaren 21eko 6/2004 Legea, hurrenez hurren.

eta beren eraginkortasun arautzailea zabaltzeko transposizio-araurik behar ez duten arren, gaia arautzen duten gainerako arauekin barne-araudian modu bateratuan agerraraztea bai da komenigarria³.

Legearen eta horren garapen-araudiaren arteko atzerapenak ahalegina sorrarazten du, Dekretuaren Sarreran aitortzen den legez, bidaiarien errepide bidezko garraioari buruzko euskal arauetan sektoreko erronka eta beharrian berriekin bat datorren sentsibilitatea sartzeko. Bereziki jasangarritasunarekiko arduraren areagotzea ikusten da; jasangarritasun hori, gainera, aipaturikoaren ikuspegi osoari dagokion legez, haren ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-dimentsio hirukoitzean hartzen dena eta Dekretuaren Sarrerako aitortpenen elementu nagusia dena.

14/11j

Hain zuzen ere, energetikoki eraginkorragoa eta CO₂ eta beste kutsatzaile batzuen atmosferarako isurketa-terminoetan garbiagoa den garraioarekiko ardura Europako gure ondarearen eta gure errealitate hurbilekoenaren zati da. EAEko mugikortasunaren inguruko azken azterketako datuek⁴ garraibide jasangarrienen barneratze urria erakusten dute EAEko biztanleen lekualdatzeetan, ibilgailu pribatuarekin lehian. Ibilgailu pribatuak EAEko biztanleek egindako lekualdatzeen guztizkoaren %38,8 irudikatzen du, garraio publikoan (errepidea eta trenbidea) egindako lekualdatzeen %14,6aren eta hiriko eta hiriarteko autobusean egindako %6,9aren aldean; eta ibilbide-mota guztietan ageri da: udalerrri barneko ibilbideetako %20,7tik hasi eta eskualde barneko ibilbideetako %58,9, Lurralde Historiko barneko ibilbideetako %78,9, Lurralde Historiko arteko lekualdatzeetako %74,2 eta kanpokoetako %90era arte.

Aztergai dugun Dekretu Proiektuaren Sarrerako garraibide jasangarrienen, energia-iturri garbienak aukeratzen dituztenen eta energia-kontsumoaren eraginkortasun handiagoari laguntzen diotenen aldeko apustua errepikatu egiten da artikuluetan barrena. Baina horrekin batera agertu behar dira, Batzorde honen ustetan, apustu horrekin bat datozen arau-xedapenak eta tresnak, asmoen aitortpenek birtualtasun praktikoa eduki ahal izan dezaten; eta puntu horren inguruan egin behar ditugu hainbat ohar.

Hala, esaterako, kontratazio publikoaren eremua (non Europako arauak dauden erosketa publiko berdearen alde, bai eta EBeko Justizia Auzite-

3.- Dekretuaren xede den gaiari eragiten dion erkidegoko araudiaren baitan, Sarrerak abenduaren 12ko 2006/1237/EE Zuzentaraua aipatu beharko luke, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, Estatuko ordenamendura abenduaren 22ko 25/2009 Legeak lekualdatua eta 21. artikuluan Lurreko Garraioen Antolamenduaren Legearen hainbat agindu aldatzen dituena bidaiarien garraioari eta beren tarifei zuzenduriko aipamenekin eta Autonomia erkidegoei zuzenduriko aipamenekin (bereziki LGALaren 18. artikulua).

4.- EAEko 2007ko Mugikortasunari buruzko Azterketa. Eusko Jaurlaritza

giaren jurisprudenzia ere zerbitzu publikoko garraiobideen ingurumen arloko portaera hobegoaren alde balorazio-irizpide legez, eta non administrazio publikoek beren ontzidiak eskuratzeko edo emakidak eta baimenak emateko lizitazioetan mota horretako irizpideak eskatu eta baloratuz zerbitzu publikoko ibilgailuen eraginkortasuna eta jasangarritasuna sustatzen lagun lezaketen) askoz gehiago aprobetxa zezakeen Dekretu Proiektuak ibilgailu eraginkorragoak eta gutxiago kutsatzen dutenak sustatzeko.

Hainbat dira mugikortasun-urratsetan esku hartzen duten faktoreak, baina azterketek⁵ eta errealtateak egiaztatzen dute garraio-zerbitzu publikoen zerbitzuen eskaintza eta azpiegitura egoteak horien erabilera errazten duela. Eta, ondorioz, ibilgailu pribatuaren aldean kuota handiagoa ahalbidetuko duten bidaiarien garraio-zerbitzu publikoak sustatzeko eskaintzen diren zerbitzuen artikulazio hobegoa eta maizago egin beharrekoa eskatzen du, bai eta moduen artean zerbitzu koordinatuak programatzea ere, garraio publikoan planteamendu intermodalak sustatuko dituzten trukeak egiteko azpiegitura egokiekin, tarifa-integratioko sistemen eta informazio integratuko sistemen ugaritzearekin.

14/11 

Hala ere, gure administrazio-antolakuntzaren konplexutasunak, errepide eta trenbideetako hiriko eta hiriarteko garraioa planifikatu eta kudeatzeko gaietan eskumenak instituzio-maila desberdinen artean zatitu eta banatzearekin, zerbitzu integratuen eta intermodalen eskaintzak antolatzea zailtzen du eta disfuntzioak sor ditzake.

Jasangarritasunaren hirugarren dimentsioari (gizarte-dimentsioa) dagokionez, egokitzat jotzen dugu garraiobideen irisgarritasun unibertsalari dagokionez Dekretu Proiektuak jartzen dituen helburuak eta babes gutxien duten edo arreta berezia eskatzen duten taldeei zuzenduriko arreta nabarmentzea; eta horien artean agerian utzi behar da zahartuena den eta zerbitzu publikoarekiko menpekotasun handiena duen biztanleria duen erkidegoak landa edo biztanleria-dentsitate baxuko guneeetan dituen mugikortasun-beharrizantara zuzenduriko arreta, 2. artikuluko antolakuntza administratiboko printzipioen artean jaso beharko litzatekeena.

Bestalde, izaera orokorreko oharren atala amaitzeko, adierazi beharra dago abian dela Lurreko Garraioen Antolamenduaren uztailaren 30eko 16/1987 Estatuko Legearen aldaketa, garraio-sistemaren eraginkorta-

5.- Ikus 4.

sunean aurrerapen berriak erraztera, arau-hausteen tipifikazioa eta zehapen-araubidea berrikustera, garraio-eskaintzaren enpresa-egituratze hobetza erraztera eta administrazio-kargak murriztera zuzendurikoa, horren lege-berritasunak interesekoak izan litezkeelarik euskal legegilearentzat sektorearen araupetzean.

IV. OHAR BEREZIAK

Dekretu Proiektuaren 2. Artikulua

Xedapen Gehigarri (bakarra, kasu honetan) bihurtzea gomendatzen da, gomendagarria baita Dekretuak artikulu bakar bat eta Araudia onartzera zuzendurikoa edukitzea.

14/11j

Horren arrazoia da Dekretuaren oinarritzko helburua Araudia onartzea dela, eta teknika juridikoko arrazoiek gomendatzen dute beste gai batzuk xedapen gehigarri bidez araupetu daitezela. Xedapen horiek araua edo horren aginduetakoren bat ezartzearen salbuespenak, dispentsak eta erreserbak jaso ohi dituzte, gai horiek artikuluetan edo, beren izaera edo edukiarengatik, arauaren testuaren beste zati batean sartu ezin diren hondar-aginduak araupetu ezin direnean edo horrela egitea egokia ez denean (teknika arauemaileko Zuzentarauak onartzen dituen 2005eko uztailaren 22ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia) (uztailaren 29ko EAO)

Araudiaren 3.4. Artikulua. Plangintza Orokorra

3. Artikuluak bidaiarien errepide bidezko garraioaren plangintzari heltzen dio, eskumenen banaketa adieraziz, bai eta Garraio-planek garatu beharreko alderdiei ere; baina ez ditu Garraio-planak definitzen. Uste dugu beharrezkoa dela Garraio-plan kontzeptuaren definizioa ematea (egun bidaiarien errepide bidezko garraioari buruzko legean ez da ageri eta aztergai dugun Dekretu Proiektuaren bertsioan ez dago aurreikusita), horiek zertan oinarritzen diren eta horien xedearen inguruan adierazpen zehatza emango duena.

Xedapen honetan Planaren jarraipenaren eta ebaluaketaren inguruko aipamenak sartzearen komenigarritasuna ere baloratu beharko litzateke, emaitzak neurtu eta proposatutako helburuak bete diren egiaztatzeko asmoz.

Araudiaren 6.1. Artikulua. Tarifen araubidea

6.1. artikuluko tarifak jendaurrean ikusgai jartzeari dagokionez, honakoa gehitzea gomendatzen da: “nahitaezko tarifak jendaurrean ikusgai jarrita egon beharko dira txartelak saltzeko tokietan, jendaurrera irekita dauden enpresako lokaletan eta zehazten diren beste bitarteko batzuetan”.

Horren justifikazioa erakutsi egin behar direla adierazten dela da, baina ez da horien kokapena adierazten, eta horrek nahasteak sorraz ditzake. Horrekin, erabiltzaileen bermeak sendotzen dira.

Araudiaren 10. Artikulua. Jarduera gauzatzeko baldintza objektiboak

10. artikuluan, honelako 2. atala gehitzea gomendatzen da: “Eskumena duen Administrazioak, edozein kasutan, enpresen finantza-egoera egokia eta horiek beharrezkoak diren baliabideak dituzten egiaztatu ahal izango du”.

Enpresaren gaitasun ekonomikoaren inguruan zalantzak egon daitezkeen kasuetan babesteko mekanismoa da administrazioarentzat. Mekanismo hori berariaz araupetuta dago Lurreko Garraioen Antolamenduaren Araudian.

Araudiaren 13. Artikulua. Aseguruak.

13. artikuluari dagokionez, honelako 2. atala gehitzea gomendatzen da:

2.-“Artikulu honetan aurreikusitako aseguruaren zenbatekoa ustiapen-gastutzat hartuko da eta ondorioak eduki ahal izango ditu dagozkion tarifetan”

Xedapen hori dagoen arauditik eratorria da eta Lurreko Garraioen Antolamenduaren Estatuko Legean araupetzen da; eta kontsumitzailearen bermeak sendotzen ditu, horrela gastu hori jasanaraziko zaiola berariaz jakingo duelarik.

Araudiaren 14.2. Artikulua. Erabilera orokorreko etengabeko garraio publiko erregularreko zerbitzuaren ezarpena.

14.2. artikuluko 2. ahapaldian, zerbitzuen bideragarritasunaren eta ja-sangarritasunaren inguruan hitz egiten da bakarrik, eta ez horien be-harraz; beraz, gai ekonomikoek gehiegizko protagonismoa eskuratzen dute. Planetan jasotzen ez diren kasuak imajina daitezke (batez ere biztanleria-dentsitate baxua duten guneei dagokionez) eta ekonomikoki bideragarriak ez direnak baina bai beharrezkoak. Beharizanaren irizpi-dea aintzat hartu beharrekoa da, beharrezko zerbitzuak ez dituztenean planak egokitzea behartzen duen aipaturiko 14. artikuluko 3. atalean ezarritakoarekin bat baitator.

14/11j

Araudiaren 15.1.3. Artikulua. Garraio-zerbitzu publikoa Ezartzeko Proiektua.

15. artikuluko 1. ahapaldiko 3. puntuari dagokionez (Bitarteko materia-lak), honakoa sartzea gomendatzen da: “bai eta ibilgailu horiek dituzten baldintza teknikoak eta segurtasun-baldintzak ere, bai eta beren ge-hieneko antzintasuna ere”.

Horren justifikazioa erabiltzaileen eta langileen babesean datza.

Araudiaren 19.1.a) Artikulua. Aldi bereko trafikoaren salbuespenezko baimena.

Lehenengo ahapaldian “interes publikoko arrazoi oinarridunak”en ondo-ren “eskumena duen administrazioak baloratuak” adierazpena sartzea proposatzen da.

Bestalde, 19.1.a) artikuluari dagokionez, zuzenbidezko biztanleriaz hitz egiten da, eta uste dugu kontzeptu hori zehaztu egin beharko litzateke-ela berau zenbatzeko, biztanlerian egon daitezkeen aldakuntzen aurrean.

Maila juridiko-administratiboan, zuzenbidezko eta egitatezko biztanleria bereizten dira. Biztanleria aldatu egin daiteke zuzenbidezko biztanle-kopurua igo edo jaitsiz; eta, hortaz, zehazteko mekanismo eraginkorra ezarri beharko litzateke.

Araudiaren 27. Artikulua. Proposamenen sailkapena.

27. artikuluari honelako 3. ahapaldia gehitzea gomendatzen da: "Hala-ber, ez dira onartuko, proposaturiko bitarteko materialekin eta langile-bitartekoeekin, objektiboki zerbitzua eskaturiko edo eskaintako baldintzetan ematea eta horren jarraitasuna behar bezala bermatu ezin duten eskaintzak".

Proposamenak aintzat hartzerakoan, Araudia aipaturikoen diru-ikuspegiari oinarritzen da, ikuspegi horren bitartez balio anormal edo neurrigabeak saihestu nahi direlarik, beste eskaintzaile batzuekiko lehiakortasun desleialeko egoerak eta hainbat kalte ekar litzaketen beste elementu batzuk alde batera utziz. Proposatzen dugun gehitzearen helburua honakoa saihestea da: enpresa bat lizitaziora baldintza oso abantailatsuak eskainiz aurkeztea, baita esleipendun suertatzea (ekonomikoa irizpide bakarra ez bada ere), baina baldintza abantailatsu horiek langileen osasunaren, segurtasunaren edo lan-eskubideen baldintzak murrizteko, zerbitzuko urritasunen, bidaiarientzako garraioaren segurtasun- eta kalitate-urritasunen eta abarren egoerak ekar ditzakeen bitarteko- eta langileria-eskaintza oso murriztailean oinarritu daitezela.

Adierazi beharra dago Lurreko Garraioaren Antolamenduaren Estatuko Araudiak klausula hori jasotzen duela.

Araudiaren 30. Artikulua. Zerbitzua abian jartzea

30. artikulua generikoki *Ikuskaritza-zerbitzuei* buruzkoa da, eta beharrezkotzat hartzen da berariaz adieraztea lurreko garraioen ikuskaritza-zerbitzuak direla.

Araudiaren 38. Artikulua. Emakiden eskualdatzea.

38. artikuluari —“emakiden eskualdatzea” (lagapena)— dagokionez, kontuan hartu beharko dira kontratua lagatzen den unean indarrean dauden laneko, kontratazio publikoko eta ekonomikoko legeriak, bai eta egokiak izan litezkeen beste administrazio-xedapen batzuk ere.

Araudiaren 39. Artikulua. Emakidaren iraungitzea eta esku hartzea.
Araudiaren 45. Artikulua. Luzapena edo eraldatzea.

39 eta 45. artikuluei dagokienez, eta analogiaz, 38. artikulurako aurreko atalean ezarritakoa zehaztu beharko litzateke. Lehenengo kasuan, egoeraren salbuespentasunarengatik eta, bigarreanean, administrazio-erabakia izateagatik.

Araudiaren 44.2. Artikulua. Erabilera baxuko zerbitzu publikorako ezartzea eta gaitzea.

Erabilera baxuko zerbitzu publikoko kontratu baten esleipen-prozedura esleitu gabekotzat aitortzen den eta administrazio-gaikuntza prozedura negoziatu bidez eman ezin daitekeen kasuetan, lehiaketa berri baten deialdia sartzeari proposatzen da, bestela suertatuko litzatekeen hutsunea beteko duena.

Araudiaren 49.2. Artikulua. Erabilera bereziko garraio erregularreko baimenaren baldintzak

Xedapen honen ahapaldi bietan, “baimenduko dira” adierazpena “baimen liteke”rengatik ordezkatzea proposatzen da.

Horrela, baimena ez da automatikoki bilakatzen xedapen honetan jasotako kasuetan eta garraioaren jomuga diren jarduera-zentzuei buruzkoetan, baizik eta aukerako; aipaturikoa eskumena duen administrazioak zehaztu beharreko baldintzetara lotu ahal izango delarik.

Araudiaren 53.1. Artikulua. Erabilera bereziko garraio erregularreko ibilgailuak

Xedapen honek erabilera bereziko garraio erregularrera zuzenduriko ibilgailuei, eskatu ahalako dagokion garraio-baimena edukitzeaz gain, indarrean dagoen legeria betetzeko beharra inposatzen die, bereziki segurtasun-arauak eta eskola-umeak eta adin txikikoak garraiatzeko berriazkoak. Jarraian, eskumena duten administrazioei haurrak atxikitze sistemak jartzea sustatzea eskatzen die mota horretako garraiara zuzenduriko ibilgailuetan.

Sortzen duen nahastea dela eta, eta aginduak hain sentikorra den (eta zeinarekin Dekretu Proiektuak Sarreran konprometitzea berariaz aitortzen duen) eskola-umeen beren ikastetxeetarako lekualdatzeetako segurtasuna bezalako gai baten inguruan ematen duen informazio urria dela eta, Batzorde honek beharrezkotzat jotzen du Araudian eskola-garraiora zuzenduriko ibilgailuek bete beharko dituzten segurtasunaren inguruko xedapenak berariaz zehaztea eta garatzea.

Zehaztapen hori beharrezkoa da baita ere eusko jaurlaritzako sailen artean eskumenen arloko gatazkak saihesteari dagokionez, ibilgailuetan haurrak atxikitzeko sistemak homologatzea industriaren eskumena dela kontuan hartuz eta ez garraioena.

Araudiaren 66. Artikulua. Bidaiarien geltokiak

14/11 

66. artikuluari dagokionez, kontuan hartu beharko da **autobuseko bidaiarien eskubideei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko otsailaren 16ko 181/2011 Araudiaren 12 eta 13. artikuluetan eta I. eranskinean ezarritakoa, mugikortasun murriztuko pertsonei dagokienez, honakoan:**

- Autobusen geltokiak izendatzea, horietan laguntza eman beharko zaie- larik ezintasuna duten pertsonei (12. artikulua)
- Geltokietako kudeatzaileek izendaturiko geltokietan doako laguntza emango diete ezintasuna duten pertsonei (13. artikulua)

Araudiaren 74.2 a) Artikulua. Administrazio-emakiden eta -baimenen titularrena

74.2 a) artikuluari (bideko liburuari buruzkoa) dagokionez, honakoa gehitzea gomendatzen da: **“Bideko liburua behar bezala bideratuta egon beharko da eta liburuan agertzen diren ohar guztiak beren izaera ezabaezina bermatzeko moduan idatzi beharko dira, aipaturikoak ezingo duelarik horiek ezagutzea zailtzen duen edo bertan aipaturiko datuak indargabetzen dituen ezabatze, karrakatze edo zuzentzerik eduki”.**

Gehitze horren helburua agiria ez manipulatzea bermatzea da. Antzeko eran araupetzen da bidaiarien errepide bidezko garraio publikoei dagokienez kontrol-arauak ezartzen dituen abenduaren 20ko FOM/2002 Aginduan.

V. ONDORIOAK

Euskadiko EGABak egokitzat jotzen du kontsultatu den Estrategia Proiektua izapidetzea, Irizpen honetan egiten diren oharrekin.

Bilbon, 2011ko ekainaren 30ean

Presidentearen OE
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia
Francisco José Huidobro Burgos



**CES
EGAB**

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
Gran Vía 81, 7. solairua
48011 Bilbao. Bizkaia
www.cesvasco.es

Maketazioa: Cuatrobarras Comunicación

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-1979-2011